

# GIDA OINARRIZKO


ARABAN BIZI DIREN  
EMAKUME MAGREBTARREI

buruzko estereotipoen  
gaiari heltzeko eta genero  
ikuspegia txertatzeko  
zurrumurruen aurkako ekintzan



**Mi\*ATURA**

ARABA · BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA  
ÁLAVA · CONVIVENCIA Y DIVERSIDAD



# AURKIBIDEA

* AURKEZPENA.....	01
* I. ZATIA.....	05
Araban bizi diren emakume magrehtarrei buruzko estereotipoen gaiari heltzea	
SARRERA.....	06
ESTEREOTIPOAK .....	08
Zer esan nahi dugu estereotipo diogunean?.....	08
Nola sortzen dira estereotipoak?.....	09
Zer da aurreiritzia?.....	12
EMAKUME MAGREBTARREI BURUZKO ESTEREOTIPOAK .....	14
Estereotiporik ohikoenak emakume magrehtarrei buruz.....	16
Emakume magrehtarrei buruzko estereotipoen gaiari heltzea .....	17
Zenbait gomendio ekintzarako.....	32
* II. ZATIA.....	39
Genero ikuspegia zurrumurruek aurkako ekintzan	
Zergatik txertatu genero ikuspegia zurrumurruek aurkako ekintzan?.....	40
Gomendio batzuk .....	40
Eranskina: emakume etorkinei buruzko estereotipoen/zurrumurruek adibideak.....	42
* ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA .....	45



# AURKEZPENA

Jarraian aurkeztuko dugun gida hau Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillako emakume talde batek Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuari eginiko eskaeraren ondorioa da. Eskaera hori bideratu zen, hain zuzen ere, Lurralde Historiko honetako Zurrumurruen Aurkako Estrategiaren eta Emakumeen Jabekuntzarako Eskolaren (LAI Aeskola) bidez.

2019an, martxoa eta azaroa bitartean, Kuadrilla honetan eginiko esku-hartzearen ondorioa da. Esku-hartzearen helburua izan zen, hain zuzen ere, emakumeei -bereziki, emakume magrebtarrei- loturiko estereotipoen gaiari heldzea, erdigunean jarririk haien partaidetza, protagonista nagusiak direnez.

2016an jarri zen abian Zurrumurruen Aurkako Estrategia Arabako Lautadako, Aiarako eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilletan, eta, zenbait urte igaro ondoren, ikusi zen beharrezkoa zela lan espezifiko bat egitea aipaturiko kuadrillak osatzen dituzten herri batzuetan bizi diren emakume atzerritarrei edo jatorri atzerritarra duten emakumeei eragiten dieten estereotipo negatiboen inguruan.

Lurraldeko zati honetan finkatuta dauden biztanle etorkinak zenbait jatorritakoak dira; hala ere, Marokoko etorkinak dira garrantzitsuenak kopuruari dagokionez, eta, Arabako Lurralde Historikoko bertako biztanleen artean egin diren pertzepzio azterketen emaitzak ikusita, populazio hori da sinpatiarik gutxien eta mesfidantzarik gehien eragiten duena. Emaitza horiek oinarri dituzte zenbait adierazpen, ezinikusia agerian uzten dutenak; kasu batzuetan, herrietako biztanleen artean tirabirak eragin ditzakete adierazpen horiek, eta bizikidetzeta kaltetu ere bai.

Emakume magrebtarren kasu zehatzean, haien errealitatea ez dugu ezagutzen, bertako populazioarekin ez dagoelako zuzeneko harreman handirik. Horrez gain, mehatxu gisa ikusten dugu haien ikusgarritasun falta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko lorpenentzat, eta gune publikoan erlijio adierazpenaren mugaren arloan. Horren guztiaren ondorioz, mesfidantza sentimenduak sortzen dira, emakume horiek ez dira onartzen edo gaitzetsi egiten dira; kasurik onenean, errukiz onartzen dira, beren beharrak beti asetzen ez dituzten eta beren errealitatera egokitzen ez diren bideak eskainiz.

Goian aipatu dugun esku-hartzea prozesu pilotu bat egitea izan zen Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillako bi herritan: Santikurutze Kanpezu eta Arraia-Maeztu herrietan. Bertan, Zurrumurruen Aurkako Estrategiak herri bakoitzeko emakume talde baten eta pertsona esanguratsuen partaidetza eta inplikazioa izan zuen, helburu hauek betetzeko:

-----

- Bizikidetzeta hobetzea, eta espazio bateratua sustatzea jatorri atzerritarra duten emakumeen eta bertako jatorria duten emakumeen artean gogoeta egiteko, elkar ezagutzeko eta trukerako.
- Emakumeok batak bestearikiko izan ditzakegun aurreiritziak lantzea, aurreiritzi horiek elkar ez ezagutzeak eta elkarrekin harremanik ez izateak eraginak izanik, eta elkarrekin batera aurre egitea estereotipo sexistei, guztioi eragiten baitigute, emakume izateagatik.
- Jatorri magrebtarra duten edo musulmanak diren emakumeen partaidetza sustatzea haiei eragiten dieten estereotipoen eta zurrumurru negatiboen kontrako borrokan, eta beraien jabekuntza sustatzea emakume eta herritar gisa.
- Zurrumurruen aurkako eragileen lanean txertatzea estereotipo eta zurrumurru sexistei eta islamofoboiei buruzko berariazko gaiak.
- Jatorri magrebtarra duten pertsonaei edo musulmanei buruz dauden usteak hobetzea, haien partaidetza sustatuz zurrumurruen aurkako ekintzetan.

-----



Helburu horiek lortzeko ekintza hauek egin ziren, besteak beste:

- Tailerrak emakume magrebtarrekin, tailerrak bertako emakumeekin eta tailerrak elkarrekin batera, elkarrekin bildu eta elkar ezagutzeko.
- Emakume hauek proposaturiko eta garaturiko ekintzak, ikusgarritasuna eta sentsibilizazioa bultzatzeko, beraien herriei eta bizilagunei zuzenduta.
- Gida bat egitea eta zabaltzea, zurrumurruen aurkako materialetan genero ikuspegia sartzeko proposamenarekin.

Kuadrilla honetan hasitako esperientziaren bidez -gaur egun martxan dago oraindik ere-, proposatzen dugu bertan ikasitakoa eta gomendioak gure probintziako beste herri batzuetara zabaltzea, non jada abian baitaude zurrumurruen aurkako taldeak eta LAIAeskola. Era berean, gida hau zabaltzea eta honen inguruan lan egitea proposatzen dugu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde eta profesional guztiei (batik bat, Kanpezu-Arabako Mendialdea kuadrillari eta CEAR-Euskadi erakundeari); eta, bereziki, proiektu honetan parte hartu duten eta parte hartzen duten emakumeei, beraien partaidetza, laguntza eta ezagupenengatik. Haiek gabe, ezinezkoa izango zen.







# I. ZATIA

ARABAN  
BIZI DIREN  
EMAKUME  
MAGREBTARREI  
BURUZKO  
ESTEREOTIPOEN  
GAIARI HELTZEA



# sarrera

Oinarritzko gida hau egiteko, zenbait tailer burutu dira Santikurutze Kanpezu eta Araia-Maeztu udalerrietan bizi diren bost emakume magrehtarren talde batekin, eta, era berean, zenbait topaketa egin dira, baita ere, udalerrri horietan bizi diren bertako euskal emakumeek<sup>1</sup>. Gidaren helburua da Euskadin bizi diren emakume magrehtarrei<sup>2</sup> buruzko zenbait estereotipo negatibori aurre egiten laguntzea. Ez du xede tresnak eskaintzea nahita eginiko diskurtso xenofobo eta arrazisten kontra, baizik eta ezagupen faltan oinarritzen diren eta mesfidantza eta/edo beldurra eragiten dituzten sinesmen batzuk deseraikitzea.

Gidaren garapenak zurrumurruen aurkako gida batzuek jarraitu ohi duten eskema du. Elkarrekin lotuta dauden hiru elementu izango ditu ardatz:




1. Tailer eta topaketa hauek 2019ko udaberrian egin zen esperientzia pilotu baten barnean daude. Esperientzia hori Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren ekimenez izan zen.

2. Gida honetan, "emakume magrehtar" diogunean, Magrebeko herrialderen batean jatorria duten emakumez ari gara, jaioren tokia edozein izanik ere (jatorritzko herrialdea, Espainiako Estatur edo Euskadi).

Era berean, estereotipoei buruzko informazioa eta ezagupena eskainiko dira, horien funtzionamendua eta ondorioak azaltzearen bidez; gogoetarako argudioak eta elementuak eskainiko dira, zenbait sinesmen faltsu desagiteko edo zehazteko, eta gomendioak emango dira jardueren inguruan.

INFORMAZIOA	GOGOETA	EKINTZA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Estereotipoen funtzionamendua ulertzeko ezagupena eskaintzea.</li><li>• Emakume magrebtarren ikuspegia eskaintzea beraiei eragiten dieten estereotipoen inguruan, eta horren inguruan gogoeta egiteko elementuak.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Jasoriko ezagupen eta informazioan oinarrituta gogoeta egitea.</li><li>• Sinesmenak eta logika aurrez aurre jartzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• NORBANAKOAREN MAILAN: jarrerak eta hizkuntza.</li><li>• MAILA KOLEKTIBOAN: abian jarri beharreko ekintzen adibideak eta gomendioak.</li></ul>





# estereotipoak

“Jakin behar duzunaren amaieran zaudenean,  
sentitu behar duzunaren hasierara iritsiko zara.”

Jalil Gibran

Gure ibilbidearen lehenengo etapan, *estereotipo* hitzak zer esan nahi duen ulertu behar dugu, eta estereotipoen zenbait ezaugarri ezagutu. Gero, estereotipoen funtzionamendua ulertu behar dugu: nola eratzen diren eta haien ondorio batzuk zein diren jakin.

---

## ¿DE QUÉ HABLAMOS CUANDO DECIMOS ESTEREOTIPO?

Estereotipo hitza grekoko *stereós* ‘sendoa’ eta *týpos* ‘moldea’ hitzetatik dator.

RAEren hiztegiaren arabera: talde edo gizarte bateko orokorrean onarturiko irudia edo ideia, aldatzen ez dena.

Buruan dugun irudi sinplifikatua da, eta sozialki onartzen da irudi horrek talde edo kolektibo jakin bat ordezkatzen duela. Era berean, onartzen dugu kolektibo bateko pertsona guztiek ezaugarri berak dituztela, eta pertsona bati ezaugarriak esleitzen zaizkio taldeko kide gisa, berak dituen ezaugarri propioak aintzat hartu gabe. Estereotipoa jende askok partekatzen du, eta ez da pertsona bakar baten buruko irudia.

Hauek dira estereotipoen ezaugarri batzuk:

-----

- Oso zailak dira aldatzen.
- Informazioa zalantzakoa denean, informazio hori osatzen dute.
- Zer espero behar dugun iradokitzen digute.
- Errealitatea sinplifikatzen dute, eta orokortu egiten dute. Adibidez, baieztatzen badugu emakume magrebtarrek modu pasiboan onartzen dutela beren familiako gizonen mende egotea, itxurei bakarrik begiratzen ari gara, eta ez ditugu aztertzen bikoteen eta familien barne dinamikak eta emakume horiek erabiltzen dituzten aldaketarako estrategiak. Gainera, ez dugu aintzat hartzen kolektibo honen barnean dagoen aniztasuna genero harremanak ulertzeko moduei dagokienez.
- Estereotipoa ezartzen zaion taldeko pertsonak bizi duten egoeraren atzean dauden egiturazko kausak ezkutatu egiten dituzte, eta pertsona horiei egozten diete bizi duten egoera txarraren errua. Aurreko adibidea hartzen badugu, hori agerian jartzen da ez ditugunean aintzat hartzen emakume magrebtarren bizitzan dauden baldintzatzaileak, beren bikotekideen mendeko egoeran jarraitzen dutenean. Hortik sinesmen faltsu bat dator, hau da, emakume magrebtarrek onartu egiten dutela genero indarkeria eta normaltzat hartzen dutela.

---

## NOLA SORTZEN DIRA ESTEREOTIPOAK?

Desberdinen arteko bizikidetzaren arriskuan jartzen duten estereotipo negatiboak aurre egiteko, garrantzitsua da ulertzea nola sortzen diren. Estereotipoak gizar-tearen pertzepzio prozesuaren emaitza dira: beste talde batzuei buruz ditugun pertzepzioek modu erabakigarrian eragiten dute haiengandik espero dugun horretan.

Soziokognitibismoaren arabera (gizarte psikologiaren korrantea da), estereotipoak pertsona baten barnean eratzen eta garatzen dira, sozializazio prozesuak sortzen diren aldi berean.

## Estereotipoak eratzea pertsonaren barnean

Estereotipoak eratzean, aldi berean gertatzen dira oinarrizko hiru prozesu kognitibo:

### KATEGORIZAZIO SOZIALA

Jasotzen ditugun informazioak eta estimuluak antolatzeko gaitasuna ematen du, errealitate konplexua sinplifikatzeko eta hobeto ulertzeko.

Jendea kategoriatan sozialetan bilduz ulertzen dugu. Ingurunetik jasotzen dugun informazio konplexua sistematizatzen dugu, ingurune horretara egokitzeko.

### KONPARAZIOA SOZIALA

Kategorizatzeaz gain, kategoriatan beste batekin konparatzen dugu, biak bereizi ahal izateko. Estereotipoek puztu egiten dituzte kategorien arteko desberdintasunak, eta talde sozialen artekoak. Eta desberdintasun handirik ez badago, asmatu egiten ditugu desberdintasun horiek, kanpoko informazioa hobeto antolatzeko.

### EZAUGARRIAK ESLEITZEN

Kategoriatu eta konparatzeaz gain, kategoriei ezaugarriak esleitzen dizkiegu, informazioa izateko kategoriatan bateko edo beste kide batek egin dezakeenari buruz, harengandik espero dezakegunari buruz eta guk izan dezakegun jokabideari buruz.



## Sozializazioak duen eragina estereotipoak eratzeko orduan

Kategorizazio soziala, konparazio soziala eta ezaugarriak esleitzea prozesu kognitiboak ez dira prozesu isolatuak, eta ez dira nahikoa azaltzeko zergatik hainbeste jendek partekatzen dituen estereotipo berak. Horiez gain, ingurune sozialak ere zeresana du, sozializazioaren eragile nagusien bidez: familia, eskola, komunikabideak eta hizkuntza. Estereotipoen atzean daude gizarteak helarazi nahi dituen balioak.

### FAMILIA

**Familiak** modu erabakigarrian eragiten du pertsonen jarrerak eta balioak eratzeko orduan. Familiaren barnean ikasten dugu gure talde sozialetik kanpoko beste talde batzuetako pertsonak ikusten, eta nola sentitzen eta jokatzeko dugun desberdina denaren aurrean. Ezagupen hori eskuratzen dugu familiaren barnean gure erreferenteak direnen ereduak behatuta.

### ESKOLA

**Eskolak**, bere aldetik, balioak helarazten dizkigu ematen diren edukien bidez eta "Curriculum ezkontuaren" zati diren edukien bidez: ikasleen artean sustatzen diren harreman motak, irakasleen jarrerak, ikasgelako ikasleen osaera... Hori guztia sartzen da desberdina denarekin erlazionatzeko dugun modua eratzekoan.

### KOMUNIKABIDEAK

**Komunikabideen** artean sartzen dira, ohiko komunikabideez gain, sare sozialak eta denbora-pasarako bitartekoak, adibidez bideo jokoak, komikiak, liburuak, antzerki ekoizpenak eta arteak. Horiek guztiek helarazten dituzten irudiek puztu egiten dituzte desberdintasunak eta helarazten dituzten balioek areagotu egiten dute desberdina denaren aurrean norbere burua indartzeko beharra.

### HIZKUNTZA

**Hizkuntzak** ere eragina du gure balio sisteman, izan ere, gure buruan zenbait asoziazio egiten dira talde sozialak izendatzen dituzten hitzen eta ideia positiboen edo negatiboen artean. Adibidez, ohiko erabilera duten adierazpen batzuen bidez (esaterako, "diru beltza"); adierazpen horien eragina benetakoa da eta arrastoa uzten du besteak ikusteko dugun moduan, nahiz eta ez garen konturatzen.

Estereotipoek beren zeregina dute, izan ere, ingurunetik datorkigun informazio ugari hori antolatzen eta sistematizatzen laguntzen digute; baina, aldi berean, gurea ez den taldeetakoak diren pertsoneri buruzko informazioan eragina dute, eta, era berean, eragina dute gure iritzietan, guk espero dugunean eta gure jokabideetan.

Jarraian ikusiko dugu nola eragiten duten estereotipoek gure jokabideetan. Horretarako, beste kontzeptu bati heldu behar diogu: **aurreiritziari**.

---


## ZER DA AURREIRITZIA?

Latinezko *praeiudicium* hitzetik dator: 'aurretiko iritzia', 'azkarregi harturiko erabakia'.

RAEren hiztegiaren arabera: aurretiko iritzi sendoa, normalean aurkakoa, gutxi ezagutzen den zerbaiti buruz.

Egiaztatu gabeko aurretiko iritzia, aldekoa edo aurkakoa, talde edo pertsona bati buruz.


Estereotipoa batez ere arlo kognitiboan/arrazionalean kokatzen da; aldiz, aurreiritziak emozioaren eta ekintzaren arloko osagaiak ditu.



Ikus dezagun nola funtzionatzen duen azaldu berri dugun horrek, mintzagai dugun taldeari buruzko adibide batekin, **emakume magrebtarrei buruzko adibide**arekin, alegia.



## Emakume magrebtar bat ikusten dudanean...



Estereotipo negatiboek mesfidantza, beldurra eta segurtasun eza sentimenduak eragin ditzakete, eta pertsonak diskriminatzeko edo baztertzeko jokabideak ekarri. Jokabide horiek, batzuetan, biktimen erreakzioa eragiten dute, eta haiek ere besteak baztertzeko jarrera har dezakete. Ikusten dugun bezala, estereotipoen eraginak eta ondorioak mehatxua dira bizikidetzarako. Horregatik, bizikidetzaren hobetzea helburu duen ekimen orok, bereziki kultura aldetik oso desberdinak diren taldeen arteko bizikidetzaren hobetu nahi bada, talde desberdinetako pertsonen gezurrezko irudi hauei aurre egiteko ekintzak izan behar ditu.

Atal hau amaitzeko, Gibrán Jalil Gibrán-en esaldia hartuko dugu berriro ere:

“Jakín behar duzunaren amaieran zaudenean,  
sentitu behar duzunaren hasierara iritsiko zara.”

Gure ezagupena areagotzeko gonbidapena, gure barnean emozio negatiboak sor ez daitezen, emozio horiek modu desegokian edo bidegabean jokatzera eraman gaitzaketelako.

# emakume magrebtarrei buruzko estereotipoak



Horrela, geure burua feministatzat dugun emakume musulmanoi eskatzen zaigu salatzeke, eta horrela gure testuinguruak kriminalizatzeke.

Formula perfektua da, bizi dugun guztia matxismoa dela onartzeko eta bizi dugun matxismo guztia “gurea” dela.

Miriam Hatibi. *Israa Ghareeb eta emakume arabiarren aldarrikapenak*  
Eldiario.es | 2019.9.15

Estereotipoek emakume magrebtarrei nola eragiten dieten ulertzeko, kontuan izateaz gain zein etnia eta kulturatakoak diren eta zein den haien jatorri nazionala, beste alderdi batzuk ere hartu behar dira aintzat:

- **EMAKUMEAK** izatea; izan ere, kultura arloko estereotipoek estereotipo sexistekin bat egiten dute. Adibidez, historikoki ezarri izan den lotura, emakumeen balizko izaeraren eta familian eta gizartean beren gain hartu behar dituzten eginkizunen artean (zaintza); edo emakumea babes behar duen izakia dela pentsatzea; era berean, emakume baten jatzeko modua eta haren izaera lotzea...
- Haien **ERLIJIOA**: musulmanak dira, eta erlijio horretako pertsoneri buruzko irudi estereotipatu negatibo ugari dituen testuinguru sozialean bizi dira, erlijio hori onartzen ez den ingurunean. Gaitzespen hori areagotu egiten da itxuraz erlijiositatea adierazten duten zeinuak daudenean, adibidez, jatzeko modua.

- Emakume **ETORKINAK** izatea: etorkinak direnean, egiturazko arazo batzuk izaten dituzte, adibidez, Atzerritartasunaren esparru juridikoaren zenbait eskakizun. Esparru juridiko horrek familiara biltzen diren emakumeei beren ezkontideekiko mendekotasun administratiboa ezartzen die, eta, horregatik, neurri handi batean mugatu egiten du haien autonomia eta erabakitzeko ahalmena.

Emakume magrebtarrak, gainera, emakume/pertsona etorkin guztiei eragiten dieten estereotipoen biktima dira, haiei buruz dagoen imaginario sozialagatik; adibidez, uste izatea “etorkinek prestakuntza maila baxua dutela, eta soilik gutxi kualifikaturiko lanak egiteko balio dutela”. Hori ez da beti argi eta garbi adierazten, baina ondorioak nabariak dira egituraz, ikusita zer prestakuntza mota eskaintzen zaien eta zein enplegu hobitara bideratzen diren.

- Haien **KLASE SOZIALA**: salbuespenak dauden arren, orokorrean Euskadin etorkin magrebtarrek duten erosteko ahalmena txikia da. Antzeko ezaugarriak dituzten beste talde sozial batzuk bezala, estereotipoen jomuga dira, eta estereotipo horiek gainerako biztanleen aldetik bazterketa, harremanak izateko interesik eza eta baita gaitzespena ere eragiten dute.

Klase sozialari buruzko aldagai honek beste ondorio bat ere badu, alegia, beste estereotipo batzuk indartzea: adibidez, Persiar Golkoko emakume bat ez da ikusten emakume etorkin magrebtar bat bezala, biek islamiar gisa ikusten den jazteko modua izanik ere.

Ikus dezakegun bezala, zenbait alderdi biltzen dira, eta batzuetan gurutzatzen: generoa, klase soziala, zer etnia edo kulturatakoa den, jatorri nazionala eta etorkina izatea, zein erlijiotakoa den eta klase soziala. Beraz, emakume hauei eragiten dieten estereotipo negatiboak aztertzerakoan, beharrezkoa da, batzuetan, sekzioartekotasuna aintzat hartzea<sup>3</sup>.

---

3. Sekzioartekotasuna tresna analitiko bat da, ikusteko eta ulertzeko zein modutara gurutzatzen diren elkarren artean desberdintasun sozialen zenbait markagailu, eta gurutzatze horiek nola sortzen dituzten esperientzia bakarrak: zapalketa, diskriminazioa edo pribilegioa.

## ESTEREOTIPORIK OHIKOENAK EMAKUME MAGREBTARREI BURUZ

Gida honetan, gizartean nahiko zabaldua dauden estereotipo batzuk aukeratu ditugu. Emakume magrebtarrek horiei buruz duten ikuspegia azalduko dugu, eta gogoeta eginaraziko diguten argudio eta elementu batzuk emango ditugu.



# EMAKUME MAGREBTARREI BURUZKO ESTEREOTIPOEN GAIARI HELTZEA

Gizonen mende egotea eta egoera horren aurrea jarrera pasiboa izatea



## ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Badakite desoreka egoera dagoela gizonen eta emakumeen arteko botere harremanetan, baina horren aurrean ez dute jarrera pasiboa agertzen. Esparru pribatuan, beste estrategia batzuk erabiltzen dituzte, beren ezkontideei aurre egin gabe, adibidez, negoziazioa, pedagogia egitea... Adierazten dute aldaketak pixkanaka gertatzen direla eta zailak direla, eta, batzuetan, immigrazioaren testuinguruan komunitatean egiten diren presioak direla-eta, edo jatorrizko herrialdeko familia/gizarte arloko presioak direla-eta, zenbait ereduri eusteko (gizonengan ere egiten dira presio horiek) moteldu edo oztopatu egiten direla aldaketa dinamikak.

Era berean, ulertzen dute genero rola eta ezaugarriak gizartean eta kulturen eraikitzen direla. Irizten dute emakumeen gaitasunak ez direla gizonenak baino txikiagoak, eta, beraz, ez dagoela justifikatuta desberdintasun eta mendekotasun egoera.




## GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Emakume magrebtarrak ez dira besoak gurutzatuta geratzen. Oso argi dute desberdintasun egoera batek eragiten diela, baina aldaketa nabarmenak azkar lortzea ez da lan erraza haientzat (era berean, ez da erraza beste kultura komunitate batzuetako emakumeentzat ere). Alderdi askotan egin behar dute borroka: alde batetik, beren komunitate/familia inguruneak izaera kolektibista du, eta banakako aldaketak mugatzen ditu; eta, beste aldetik,

familiara bilduriko emakumeak direnean, beren egoera administratiboak askotan ez du errazten ezkontideekiko autonomia izatea. Horrez gain, ingurune islamiko batzuetan erlijioa erabili egiten da, desberdintasunari eustea justifikatzeko.

Emakume magrebtarrei buruz hitz egiten dugunean, askotan talde homogeen bati buruz aritzen gara, eta alde batera uzten dugu talde horren barnean aniztasuna dagoela, beste edozein talde sozialen barnean bezala. Berdin hitz egiten dugu emakume ezkonduetari eta ezkongabeetari buruz, familiara bildu diren emakumeetari eta migrazio proiektu autonomo bat duten emakumeetari buruz, emakume gazteetari eta adin bateko emakumeetari buruz, Euskadin edo Europan jaio eta hezitako emakumeetari eta jatorrizko gizartean jaio eta hezitako emakumeetari buruz, hiri inguruetatik datozen emakumeetari eta landa inguruetatik datozen emakumeetari buruz, prestakuntza maila altua duten emakumeetari eta oinarrizko prestakuntza maila duten emakumeetari buruz... Aldagai horiek guztiak eta beste asko direla eta, ahaztu gabe emakume bakoitzaren ezaugarri pertsonalak, genero harremanetari buruzko jarrerak askotarikoak dira; hala ere, bikotearen eta familiaren barnean emakumeak duen mendeko egoera zalantzan jartzea gora doan joera da, bai immigrazio testuinguruetan komunitate magrebtarren barnean, bai jatorrizko herrialdeetan.



Emakume magrebtarrak gero eta gehiago batzen dira mendebaldeko gizarteetako berdintasunaren aldeko mugimenduetara eta salaketa mugimenduetara; urtetik urtera ageriago daude, eta beren iritzia entzunarazten dute. Era berean, beren lan espazioak ere sustatzen dituzte, gutxiengoan dagoen talde bateko emakume gisa duten egoera hobetzeko<sup>4</sup>.

Jatorrizko herrialdeetan, antolaturiko mugimenduak daude, duela hamarkada askotatik, eta haien eragina handitzen ari da: legegintzako aldaketak lortu dituzte, emakumeen estatusa hobetzeko eta emakumeekiko indarkeria borrokatzeko<sup>5</sup>. Militantzia jarraitzen dute, eta horko partaideek oso ondo dakite araudiaren arloko berrikuntza gehiago behar direla. Beren ekintzak kontzientziazioaren arloan ere egiten dituzte, mentalitate aldaketak eragiteko.


4. Berdintasunaren helburua gainerako emakumeekin partekatzen badute ere, lan metodologiek egokitzapenak eta doikuntzak eska ditzakete, behar espezifiko batzuk aintzat hartuta lan egiteko.

5. Muddawanaren erreforma Marokon, 2004an, eta Familiaren Kodearen erreforma Aljerian, 2005ean. Emakumeekiko indarkeriaren kontrako legeen aldarrikapena Aljerian 2015ean eta Marokon 2018an.

Ikuspegia zabalduz: emakume asko mendeko egoeran eta besteen esanetan egotea ekartzen duen desberdintasuna -hainbat mailatako desberdintasuna da, testuinguruen arabera- ez da gizarte magrebtarraren berezko ezaugarria, eta ez da gizarte horrena bakarrik. Gizarte guztietan dago sartuta. Horrek ez du esan nahi erlatibizatu egin behar dugunik, baina garrantzitsua da hori alde batera ez uztea, eta, gainera, geure buruari galdetzea zergatik jartzen dugun hainbestearainoko arreta talde batzuetan, eta ez beste batzuetan; kasu honetan, emakume magrebtarren jartzen dugu arreta (arabiarrek, musulmanak...), eta ez matxismoaren neurria benetan kezkarria den beste gizarte batzuetako emakumeengan<sup>6</sup>. Horren ondorioz, gogoeta egin behar dugu zuzeneko harremanik ez dugun talde edo gizarteei buruzko ezagupena lortzen dugun moduari buruz, eta jabetu behar gara hori egiteko komunikabideen baitan gaudela, bai eta komunikabide horiek nola lan egiten duten ere: talde jakin batzuegana erakartzen dute gure arreta, produktu mediatiko errentagarri gisa aukeratzen baitituzte testuinguru politiko/historiko bakoitzerako, eta haiei buruzko ezagupena sortzen dute gudan, neutrala ez den ezagupena; horrek berrelikatu egiten du produktu mediatiko errentagarri gisa duten izaera.

Atal honekin amaitzeko, Michel Foucault filosofoaren esaldi bat aipatuko dugu. Gogoeta egitera garamatza, komunikabideek zer informazio dinamika erabiltzen dituzten modu hain nabarmenean gaien agenda bat ezartzen digutenean.

*Ageriko diskurtsoa, azken finean, esaten ez denaren presentzia errepresiboa baizik ez litzateke izango.*



6. Indiako gizartea, adibidez.

## Geroaren eragina seme-alaben hazkuntzan eta heziketan



### ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Aitortzen dute generoak eragina duela, eta desberdintasunak daudela heziketa ereduetan. Jabetzen dira paradigma aldatu beharra dagoela. Adierazten dute beren alabek beraiek eskatzen dutela aldaketa hori eta beren anaiekin berdintasunean egotea; etxeko lanen banaketa beste modu batera egitea eskatzen dute eta normalean “gizonenak” bezala hartzen diren jardueretan parte hartzen dute. Amek jaramon egiten diete eskaera horiei, eta saiatzen dira alaben eta semeen arteko oreka bideratzen, baina nabarmentzen dute zaila dela aldaketak lortzea epe motzean; izan ere, jatorrizko herrialdeetan, beren inguruneetan inertzia aurkitzen dituzte, eta hango egonaldiak oztopoak izaten dituzte. Kasu batean, aipatu da ezkontideak (kasu honetan, alabaren aitak) presioa egiten duela, genero eragina duten heziketa jarraibideei eusteko.

Bestalde, aipatzen dute alabek “emakume izateko” beste eredu batzuk eskatzen dituztela, eta asmo handiak dituztela prestakuntzaren eta lanaren arloan. Beraiek erabat ados daude alabek ikasketetan eta bitzita profesionalen maila handia lortzearekin.

Aipatzen dute jatorrizko herrialdean familia batzuek lan egiten dutela alabek ahalik eta ikasketak gehien egin ditzaten, eta beste familia batzuek ikasketak mozten dizkietela, tradizioen izenean; beraiek ez daude ados tradizio horiekin. Zehazten dutenez, fenomeno hori batez ere landa guneeetan gertatzen da.

Euskadin dauden familiei dagokienez, adierazten dute gehienek oso positiboki baloratzen dutela beren seme-alabek duten ikasteko aukera, eta jabetzen direla ikasketak estatus sozio-ekonomikoa hobetzeko bidea direla. Horregatik, beren seme-alabei ikasketekin aurrera egiteko esaten diete.






## GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Berriro ere ikusten dugu emakumeak ez direla geldirik geratzen ezarritako eredu batean, baizik eta aintzat hartzen dutela beren familietan aldaketak egiteko beharra. Beren alaben eskaerek babesa ematen diete, izan ere, alaba horiek, beren anaiek bezala, beste sozializazio gune batzuk ere badituzte, eta gune horiek genero harremani buruzko beste ikuspegi bat sorrarazten dute, bai nesken, bai mutilengan.

Aurreko atalean bezala, jatorrizko gizartean dagoen inguruneak eragina du. Ingurune horrek eredu tradizionala indartzen du, eta emakume magrebtarrentzat aurre egin beharreko beste elementu bat da aldaketak sortzeko beren estrategietan.

Zalantzarik gabe, ezin dugu baieztatu emakume magrebtar gehienak horrelako aldaketetan murgilduta daudenik, ez dugu baieztapen hori (edo kontrakoa) egiaztatzeko modurik. Baina abian dago norabide horretan doan dinamika bat, eta balioetsi egin behar ditugu beraientzat eta beren alabentzat berdintasun gehiago lortzeko helburua hartu duten emakumeen ahaleginak; aldi berean, errespetatu egin behar ditugu helburu hori lortzeko beraiek aukeratu dituzten bideak ere.

Ikuspegia zabalduz: seme-alabak berdintasunean heztea erronka bat da mendebaldeko familia askorentzat ere. Heziketatik zenbait estereotipo sexista kentzea, bereziki rolekin eta ezaugarriekin loturikoak (asko daude heziketa euskarrietan, adibidez jostailu eta jolasetan, telebistako programetan, modan...), gaur egun oraindik ere amaitu gabe dagoen lana da, baita genero berdintasunaren indizeetan puntuaziorik onena duten gizarteetan ere.



## Interesik eza prestakuntzarako eta etxetik kanpo lan egiteko



### ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Prestakuntzari dagokionez, aitortzen dute hizkuntza arloko zailtasunak oztopo bat direla prestakuntzako ikasketetako asko egin ahal izateko. Hala ere, borondate handia agertzen dute ikasteko, beren hizkuntza maila hobetu eta autonomia handiagoa lortzeko.

Etxetik kanpoko lanari dagokionez, inork ez du agertzen kontrako jarrerarik, eta gehienek enplegu bat lortzeko nahia agertzen dute (zaintza/garbiketa). Are gehiago, nolabaiteko frustrazioa adierazten dute, enplegua lortzeko zailtasunagatik. Adierazten dute jendeak ez duela jotzen asko emakume magrebtarregana lan mota horiek eskaintzeko orduan (susmoa dute ez dutela konfiantzarik beraiengan, aurreiritziengatik). Era berean, nabarmentzen dute garrantzitsuak direla laguntza sareak, bitartekari lana egiteko eta balizko enplegatzaileei bermeak emateko.

Emakume musulman gisa, aipatzen dute erlijio islamikoan lana oso garrantzitsua dela, gurtza modu bat delako.



### GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Emakume magrebtarrek onartzen dituzte, argi eta garbi, zenbait aldaketa roletan, eta, kasu batzuetan, beren familien hornitzaile nagusiak edo bakarrak bihurtzen dira<sup>7</sup>.


Gaur egun, zenbait ingurune magrebtarretan, ez dago erabat normalizatuta emakume batek familia etxebizitzatik kanpo lan egitea, baina jendeak uste duen baino normalizatuago dago. Gainera, Euskadin jaiotako edo hezitako emakume gazteen belaunaldian, enplegua da haien helburu nagusietako bat, euskal gizarteko beste edozein emakume gazteren kasuan bezala.

7. Esperientzian barrena, bi emakumek aurkitu zuten lana. Erabat zoriontsu eta lasaituta sentitu ziren, izan ere, bi kasuetan, ezkontideak langabezia zeuden. Beste emakume batek esan zuen berak bilobak zaintzen lan egiten zuela; horrela, alabak lan egiteko aukera zuen, lana eta familia bateragarri egiteko zaila zen orduategia baitzuen.

Baina, emakumeek esan zuten bezala, bai amek bai alabek oztopoak aurkitzen dituzte, zenbait aurreiritzirengatik. Hain zuzen ere, emakume magrebtarrak kontratatzeke orduan mesfidantza agertzen da, edo kontratatzearen kontrako jarrera dago, haien jatzeko modua<sup>8</sup> onartzen ez delako edo beste uste batzuegatik: kultura gabeko emakumeak direla eta, beraz, ez direla fidagarriak; kualifikazio gutxikoak direla eta lanposturako ez direla egokiak (iritzi horren oinarria da, soilik, buruan zapi bat eramatea). Beste arrazoi bat arrazakeria da.

Beraz, garrantzitsua da gogoeta egitea gizarteak duen zeresanari buruz zenbait egoera iraunarazteko orduan, eta zer kontraesan bizi ditugun egoera hauen arrazoia egoera horiek nozitzen dituzten pertsonen egozten diegunean.

Estereotipo batzuen gaiari heltzeko orduan, immigrazioa hartzen duten gizarte azterketa egin behar da, eta, era berean, aztertu behar dira gizarte horien barnean eratzten diren baldintzatzaileak, estereotipoen xede bihurtzen diren etorkinen egoeran eragiten baitute.



---

8. Nahiko ohikoa da emakume magrebtarrei eskatzea beraien jatzeko modua alda dezatela, kontratatu baino lehen. Horren inguruko testigantza ugari daude.

## Interesik eza beren komunitatetik kanpoko pertsonekin harremanak izateko



### ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Guztiek adierazten dute hizkuntza ondo ez jakiteak asko zailtzen duela bertako edo beste jatorri batzuetako pertsonengana gerturatzea. Esaten dute, baita ere, ez dela erraza jendearengana gerturatzea, lotsa sentitzen dutela.

Partaide batek adierazi du bere alabaren eskolako bileretan batzuetan ez duela ezer ulertzen, baina geratu egiten dela, uste duelako bera han egotea garrantzitsua dela.

Azpimarratzen dute zaila dela bertako pertsonengana gerturatzea, hauek oso isilak direlako. Partaide diren euskal emakumeek hori ulertzen dute: aitortzen dute “gure izateko erak” ez duela laguntzen arlo honetan.

Emakume magrebtarrek, hala ere, azpimarratzen dute denetik dagoela: batzuk beraiengana gerturatzen dira, eroso sentiarazten dituzte, eta beraiek “ahal duten neurrian hitz egiten dute”; beste batzuek agurtzean agur esaten dute, baina elkarrizketak ez du aurrera jarraitzen.

Partaide batek, gaztelaniaz hobekien hitz egiten duenak, adierazi du hizkuntza gehiago ikasteak lasaitasuna eman diola, lotsarik gabe komunikatzea lortu baitu.



### GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Emakume magrebtarren ekarpenetan ikus daitekeen bezala, itxuraz atzera egiten badute ere horren arrazoia komunikazio oztopoak dira, konfiantza falta eragiten baitute gerturatu ahal izateko. Era berean, partaide diren euskal emakumeek aitortu duten bezala, zailtasunak daude bertako pertsonen izaeragatik: oso isilak dira, eta beren ohituretan beste dinamika bat sartzeko joera gutxi dute, adibidez, norbere ohituretatik desberdinak diren ohiturak dituen pertsona batekin harremana izatea.

Euskal emakumeek autoazterketa eta autokritika egin zuten, eta harremanen arloan emakume magrebtarrek dituzten zailtasunak ikusteaz gain, aztertu zuten zein zen beren inplikazioa eta bertako pertsonen inplikazioa emakume hauei laguntzeko eta gauzak errazteko orduan. Izan ere, emakume hauen eguneroko bizitza oso zaila da, emakume gisa, etorkin gisa, arabiar gisa, musulman gisa: patriarkatua, egoera sozio-ekonomikoa, egoera administratiboa, komunitate barneko presioa, gizartearen begirada, izan dezaketen “gutxiagotasun” sentimendua, seme-alaben baitan daudelako komunikatzeko eta ingurunea ulertzeko.

Desberdina denarekin lotuta norbere buruari buruzko gogoeta hori “Kulturarteko Kontzientzia” deritzonaren zati da, Kulturarteko Konpetentziaren osagai bat<sup>9</sup>, beharrezkoa dena harremanak errespetuz eta modu egokian izateko kultura anitzeko inguruneetan.

## Genero indarkeriaren onarpena



### ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Guztiak daude bikotekideek indarkeria erabiltzearen kontra. Tratu txarrak egonagatik ezkontza loturari eusteari dagokionez, iritziak desberdinak dira: emakume batek adierazi du ezkontza horrek ez lukeela jarraitu behar tratu txarrak jarraituak direnean; besteek diote komenigarriena lotura haustea izango litzatekeela, baina ez dela hain erraza, faktore ugari daudelako jokoan: ezkontideekiko mendekotasuna (ekonomikoa, administratiboa, emozionala...), bakoitzaren familien inplikazioa, emakume dibortziatuen estigma beraien komunitatean...

Guztiak bat datoz esatean poliziaren aurrean salaketa jartzea ez dela beti biderik onena, emakume batentzat zalantza betetako denboraldia has daitekeelako; izan ere, immigrazioaren testuinguruan, ezkontidea izan da une horretara arte haren babes eta laguntza sare nagusia -eta, batzuetan, bakarra-.

9. Beste osagaiak hauek dira: konpetentzia kognitiboa (kulturarteko ezagupena), jarrera arloko konpetentzia (kulturartekotasunerako jarrerak), eta konpetentzia afektibo-emozionala.



## GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Emakume magrebtar batzuk beren bikotekideen aldetik tratu txarrak nozitzen dituzten egoeran daudenean, ez daude egoera horretan tratu txar horiek onartzen dituztelako. Askotan, tratu txarrak jasaten dituen emakumea izateari beste egoera batzuk ere gehitzen zaizkio, eta egoera horiek gainditu egiten dute: ezkontideekiko mendekotasuna -beren bizitzako alderdi askotan-; kasu batzuetan familia edo komunitate ingurunearen presioak, ezkontza loturari eusteko eta dibortzioaren estigma saihesteko; beldurra ezezaguna denaren aurrean eta adin txikiko seme-alabengatiko kezka zalantza beteriko testuinguru baten aurrean; konfiantzarik eza berak bakarrik familia aurrera ateratzeko duen gaitasunean, bere lehentasuna izanik bizitzeko bitartekoak bermatzea seme-alabentzat; izapide ugari egin beharko direla aurreikustea eta erakundeen funtzionamendua ez ezagutzea; komunikatzeko zailtasunak...

Atal honetan, aipatu behar dugu Atzerritarren erregimena egiturazko desberdintasunaren iturri dela: familiara bilduriko emakumeei eta pertsoneri ezartzen dizkieten bizileku eta lan baimenak beren ezkontideen dokumentazioaren baitakoak dira; baimen horiek galdu egin daitezke ezkontza lotura hausten bada<sup>10</sup>.

Ikuspegia zabalduz: emakumeen kontrako tratu txarrak dauden harremanei eustea ez da gertatzen soilik emakume magrebtarren artean; hainbat jatorritako emakume etorkinen kasuan eta bertako emakumeen kasuan ere gertatzen da. Emakume magrebtarren kasuan, beste zailtasun batzuk ere agertzen dira, esaterako hauek: komunikazio oztupoak dituzte; enplegarritasun txikia dute, eta horrek haien autonomia murrizten du; eta beren kultura esparruaren erreferentziako ezaugarriak dira kolektibismoa (ezkontza bi familiaren arteko lotura da, eta dibortzioak bi familia horien arteko harremanen haustura dakar, askotan familia horiek nahi ez dituzten ondorioekin) eta emakume dibortziatuek duten estigma.

---

10. Emakumeak baimen berri bat lor dezake epai batek genero indarkeriaren biktima gisa aitortzen badu, prozedura judicial baten ondoren. Epaia absoluziozkoa bada, bizileku eta lan baimenik gabe geratuko da.

## “Jarrera pasiboa” erlijioa aitzakiatzat hartzen duen indarkeriaren aurrean



### ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Erabat baztertzen dute erlijioa aitzakiatzat hartzen duen indarkeria, eta Euskadin zerbait gertatzeak beldurra eragiten die, mundu guztiarentzat arriskutsua delako eta komunitate magrebtarrek estigma eta gaitzespena nozitu ditzaketelako. Adierazten dute beraiek eta beren komunitateak soilik bakean eta segurtasunarekin bizi nahi dutela, eta indarkeria darabilen jendea “benetan ez dela Jainkoaren beldur”.



### GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Musulmanak dira indarkeria mota honen lehenengo biktimak, eta ugariak. Alde batetik, gehiago musulmana duten herrialdeak eta gizarteak dira indarkeria mota hau gehien jasaten dutenak, bai giza biktimei dagokienez, bai eta beren ekonomiak, ongizate mailak eta bizi kalitateak izaten dituen ondorioengatik ere, segurtasun eza etengabea delako. Beste aldetik, indarkeria mota honek areagotu baizik ez du egiten, Mendebaldean, musulmanen estigma eta haienganako gaitzespena, nahiz eta gehiago zabalak ez izan zerikusirik indarkeria horrekin eta haren atzean dagoen ideologiarekin. Gaitzespen horrek ondorioak ditu pertsona magrebtarren eta emakume magrebtarren egunerokoan, diskriminazioak ez ezik, indarkeria eta erasoak ere jasaten baitituzte.

## Jazteko modua: mendekotasunaren sinboloa



### ZER DIOTE EMAKUME MAGREBTARREK?

Haien ustez, gaitzespena beldurrak eragiten du, eta beldurra ezagupen faltak. Adierazten dute komunikabideek irudi faltsua helarazten dutela hiyaba daramaten emakumeei buruz, eta garrantzitsua dela zuzeneko harremana izatea, okerreko uste hori gainditzeko.

Kultura magrebtarraren errealitatea eta erlijioaren benetako esanahia, beraientzat jazteko moduak duen esanahia, ezagutarazteko nahia agertzen dute. Interes handia agertzen dute bertako pertsonekin ezagupen espazioetan parte hartzeko aukeraren aurrean.

Emakumeen jazteko moduaren eta gune publikoan izaniko sexu jazarpenaren arteko lotura oro baztertu egiten dute. Uste dute fenomeno hau soilik gizonena den arazo baten ondorioa dela, eta ez duela inolako loturarik emakumeen jazteko moduarekin edo kanpoko itxurarekin. Era berean, adierazten dute jatorrizko gizartean emakume guztiek jasaten dutela jazarpena kalean, jazteko modua edozein izanik ere; oso kezkatuta agertzen dira arazoak han hartu duen dimentsioagatik.

Gizartean nabari dituzten gaitzespen jarrerak direla-eta, adierazten dute ezin dutela orokorrean hitz egin, baina jarrera horien aurrean beraien autoestimua kaltetuta geratzen dela. Mina eta ezinegona sentitzen dute. Batek aipatu du batzuetan negar egiteko gogoia sentitzen duela arrazoi horregatik baztertzeko dutenean. Beste batek aipatu du behin bere semearen aurrean baztertu zutela; adierazi du garrantzia kentzen saiatu zela, gaztea minduta senti ez zedin, berarentzat lehentasuneko delako bere seme-alabak gizarte honetan onartuak sentitzea eta gaitzespena ez barneratzea, beraiek ere erantzun gisa atzera egin ez dezaten.





## GOGOETARAKO ELEMENTUAK

Emakumeek adierazten dute modu jakin batean jazteko berenerabakia erlijio betebeharrarekin lotuta dagoela. Ez dute lotzen ohitura hori beren familietako edo inguruneetako beste kide batzuen mende edo esanetan egotearekin. Hori beren sinesmen sistemen zati da. Beste pertsona batzuen segurtasuna, osotasuna edo askatasuna mehatxatzen ez duten beste sinesmen eta erlijio ohitura batzuk bezala, errespetatu egin behar da.

Hori esanda, ezin dugu baieztatu emakume musulmanen erabaki hori beti askatasunez hartua denik. Badakigu ingurune batzuetan emakumeek presioak izaten dituztela jazteko modu hori bereganatzeko edo jazteko modu horri eusteko, nahiz eta beraiek aldatu nahi izan. Egia hori aitorturik, ezin dugu esan orokorra denik.

Erljio arloko irizpidez haratago, hiyaba daramaten emakumeen jazteko moduaren atzean esanahi eta ñabardura ugari daude, baina gida honen formatuak ez du hori guztia zehatz-mehatz aztertzeke modurik ematen. Horrek aparteko lan bat eskatuko luke.

Beste gogoeta batzuk aurkeztera mugatuko gara; batzuk ez daude lotuta berariaz hiyabarekin, baina gure ikuspegia zabaltzen lagunduko digute, eta gure jarrera batzuei buruzko gogoetarako elementu batzuk sartzen.

Baina, aurretik, garrantzitsua da hasierako abiapuntu bat azpimarratzea:

**Hiyaba daramaten emakumeak gaitzestea, gaitzespen hori edozein modutara agertzen dela ere, ez da normalizat hartu behar eta ez da normalizatu behar gure gizartean.**

Tailerretan parte hartu zuten bertako emakume batzuek adierazi zuten zerbait emozionala zegoela, ez arrazionala, hiyabaren aurrean sentitzen zuten horretan. Eta zapia “oztopo” gisa sentitzen zutela, emakume musulmanarengana “iristea” galarazten dien zerbait bezala.

Gure sozializazio prozesuan “normala” bezala barneratu ditugun irudi eta mezu guztiek baldintzatzen dituzte gure pertzepzioak: adibidez, emakume baten ilea ikustea “normala” da<sup>11</sup>; ilea estaliz zapia ikustea “ez da normala”, eta modu ez kontzientean oztopo batekin lotzen da. Seguru asko antzeko zerbait gertatuko

11. Gizarte katoliko eta kristau ortodoxoen kasuan, ilea agerian eramatea ez da beti izan araua. Zapiak erlijio esanahia izan zuen une historiko batzuetan, eta, horregatik seguru asko, gaur egun ere zapia horrela interpretatzen da, gune publikoan erlijio sinboloen presentzia onartzen ez duen ideologia sekularraren arabera.

litzaieke Amazoniako tribuetako pertsoneri, non emakumeek bularrak agerian ibili ohi dituzten, lehenengo aldiz harremanetan jartzen direnean bularrak estalita dituzten mendebaldeko emakumeekin, eta baliteke mendebaldeko emakumeen jazteko modua oztopo gisa ikustea.

Garrantzitsua da jabetzea gauzak “normal” eta “ez normal” gisa kategorizatzen ditugunean kulturalki baldintzatuta gaudelako dela, eta kategorizazio hori ez dela neutrala.

Zapiaren gaiari helduz berriro ere, emakumeak gizonen mende egotearen sinbolo gisa aztertuz, eta Mendebaldean bizi diren emakume musulmanen kasu zehatzean, badakigu iritziko publikoaren sektore zabal batek pertzepzio hori duela. Horrez gain, badakigu -eta horrela dago onartuta emakumeen jabetzaren estrategietan- emakumeen autonomia sustatzeko moduetako bat haien independentzia ekonomikoa ahalbidetzea dela, ordaindutako enpleguaren bidez. Era berean, atentzioa ematen du hiyaba mende egotearen sinbolo gisa “salatzea”, baina, aldi berean, ez salatzea hainbeste (eta ia batere kezkarik ez eragitea) hiyaba duten emakume askok enplegua lortu ezina hain zuzen ere beraien jazteko modua dela- eta. Eta, hori guztia, nahiz eta jakin -are gehiago mendeko egoeran badaude, “haien jazteko moduak adierazten duen bezala”- enplegu hori haien autonomia indartzeko eta askatasuna lortzen laguntzeko bide bat izan daitekeela.

Izan liteke benetan kezka eragiten duena ez izatea mendeko egoera -eta, bistakoa denez, bizi izan duten diskriminazioa-, baizik eta egoera horren sinbolotzat jotzen dena? Izan liteke kezka eragiten duena emakumeek duten jazteko modua baizik ez izatea?

Emakume musulmanen jazteko moduan begirada jartzea testuinguru zabalago baten barnean kokatu behar da; alegia, emakumeen gorputzean eta hura erakusteko moduan jartzen da begirada. Hori izan da, historikoki, gizarte patriarkal eta androzentriko guztien ezaugarria.

Emakume batek -izan musulmana ala ez- bere gorputza espazio publikoan agertzen duen moduari buruz iritzia ematen dugunean, eta modu hori epaitzen dugunean, ez ote gara ideologia patriarkala onartzen ari, emakume bakoitzarentzat zer den ona eta zer txarra erabakitzen duena? Badugu eskubiderik gai horri buruzko iritzia emateko? Zer irizpidetan oinarrituta erabakitzen dugu guk zer den ona eta zer ez emakume horrentzat? Ez ote gara beste asoziazio sexista bat egiten ari, emakumeen itxuraren eta haien izaeraren artean? Modu horretan, emakumeen subjektibotasuna sinplifikatu egingo genuke, eta zehazteko oso erraza den zer baitetara mugatuko genuke, nahikoa baita haien jazteko modua behatzea.

Galdera horiek guztiak egin behar dizkiogu geure buruari, hiyabaren gaiari heltzerakoan eragin gutxiago izateko.

Belo integrala deiturikoari dagokionez (*niqaba*, arabieraz), gutxiengo batek erabiltzen du, eta kontrako jarrera edo gaitzespena nahiko zabaldua dago emakume musulmanen artean, muturreko erlijiositatearen adierazpen gisa ikusten dutelako. Egia esateko, jatzeko modu hori eramateko erabakiaren atzeran askotariko egoerak eta arrazoiak egon daitezke, eta horrela jutzen diren emakumeak baztertu edo estigmatizatzen daramaten jarrerak izan baino lehen, komenigarria da arrazoi eta egoera horien berri izatea.

Orokorrean, zapia edo belo integrala dela ere, jatzeko modua ezin da izan baztertzeko edo gaitzesteko arrazoia.



## ZENBAIT GOMENDIO EKINTZARAKO

Gida honetan azaltzen diren gomendioak bi mailatan kokatzen dira: norbanakoaren mailan eta maila kolektiboan.

Norbanakoaren mailan, gomendioak hauetan oinarritzen dira: jarrera proaktiboak izatea emakume magrehtarrei eragiten dieten estereotipoen aurrean, eta haiei buruz hitz egitean erabiltzen den hizkuntza berrikustea.

Maila kolektiboan, helburu bikoitza izango luketen jardueren adibideak eskaintzen dira:

1. udalerrian antolatutako jardueretan emakume magrehtarren partaidetza sustatzea, emakume horiek herriko beste bizilagun batzuk bezala ikus ditzagun.
2. kulturarteko ikuspegia sartzeko udalerriko ekitaldien agendan. Horrela, emakume magrehtarrek aukera izango dute beren kulturako osagai batzuk agertzeko eta bizilagunak gonbidatzeko osagai horiek normaltasun osoz ezagutzera.

Jardueren adibideez gain, metodologiaren arloko gomendio batzuk ere aurkezten dira.

### NORBANAKOAREN MAILAN

JARRERAK  
HIZKUNTZA

### MAILA KOLEKTIBOAN


ABIAN JARRI BEHARREKO  
JARDUEREN ADIBIDEAK  
GOMENDIOAK

## NORBANAKOAREN MAILAN

### JARRERAK

Gida honen bidez eskuraturiko ezagupenak, gogoeta eragiteaz eta gure kontzientzia pizteaz gain, jarrera hauek hartzera gonbidatzen gaitu:

- Emakume/pertsona magrebtar rengana gerturatzea
- Ezagupena sustatzen duten ekimenetan parte hartzea
- Gure inguruneetan dabilzan topiko jakin batzuk deseraikitzen lan egitea
- Diskriminazioa edo bazterketa ageri duten jokabideak salatzea
- Estereotipo negatiboak indartzen dituzten komunikabideen edukiak modu aktiboan kritikatzeta




## NORBANAKOAREN MAILAN

### HIZKUNTZA

Aurrerago ikusi dugun bezala, hizkuntzak lagundu egiten du gure buruan finkatzen talde sozialak izendatzen dituzten hitzen eta ideia negatiboen arteko asoziazioak. Garrantzitsua da bereziki estigmatizatuta dauden taldeei buruz (adibidez, pertsona/emakume magrebtarrei buruz) hitz egiteko erabiltzen ditugun hitzak aukeratzea.

Adibidez, nahiko zabaldua dago "mairu" hitza. Hitz hori ez da neutrala, eta konnotazioz beteta dago, entzuleengan irudi eta sentipen jakin batzuk eragiten dituztenak.

Garrantzitsua da hitz hori baztertu eta neutralagoa den beste hitz bat erabiltzea. Gure inguruko pertsonak hori egitera gonbidatu behar ditugu.



## MAILA KOLEKTIBOAN


### MARTXAN JARTZEKO JARDUEREN ADIBIDE BATZUK

Emakume magrehtarren partaidetza sustatzea berdintasunaren agendan: M8 eta A25: haien partaidetza sustatzea jarduera orokorretan, eta jarduera espezifikoren bat antolatzea haien errealitatearekin lotuta.

Emakume magrehtarren partaidetza sustatzea Eguberrietako jaietan eta ekitaldi esanguratsuetan, adibidez, Maeztuko Azokan. Bertan, Magrebeko produktu tipikoen salmenta postua jar daiteke, eta Marokoko jantzi tradizionalen erakusketa bat.

Ramadango hilabetaren amaiera ospatzea, herrian partekaturiko ekitaldi gisa.

*Kultura Aniztasunaren aldeko Emakumeen Egun* bat izendatzea, herriko emakume guztien partaidetzarekin.




## MAILA KOLEKTIBOAN

### GOMENDIOAK

Garrantzitsua da antolatzen diren jardueretan emakume magrebtarrak izatea protagonista nagusiak edo berdintasunean parte hartzea gainerakoekin, bai beraien kultura/erlijioarekin loturiko jardueretan, bai beraien generoarekin loturikoetan.


Saihestu egin behar dira beraiei buruz "hitz egiten den" jarduerak. Beraiek dira hitz egin behar dutenak.

"Elkarrekin batera egiteko" jarduera motak sustatu behar dira, eta, horietan, jarduerak beste emakume/pertsona batzuekin batera prestatuko dituzte. Horri esker, konfiantza oinarri duten harremanak landuko dira, eta, era berean, elkarrekin batera hartuko dute kontzientzia "emakume izatearen" inguruan.









# II. ZATIA

GENERO  
IKUSPEGIA  
ZURRUMURRUEN  
AURKAKO  
EKINTZAN

---

## ZERGATIK TXERTATU GENERO IKUSPEGIA ZURRUMURRUEN AURKAKO EKINTZAN?

Estereotipo sexistek eta genero estereotipoek emakume guztiei eragiten diete, edozein izanik ere haien jatorri nazionala, etnia, kultura edo erlijioa. Emakume etorkinek edo jatorri atzerritarra dutenek<sup>12</sup> ere errealtate hori bizi dute, eta estereotipoen eta zurrumurruen xede dira, alde batetik emakumeak direlako, eta, bestetik, atzerritar “etorkinak” edo jatorri atzerritarrekoak direlako. Estereotipo eta zurrumurru horiek berariaz haiei eragiten diete, ez bertako emakumeei, ez gizon etorkinei edo jatorri atzerritarra dutenei.

Euskadin ezarritako zurrumurruek aurkako estrategien esparruan garaturiko argudioen artean ez da zurrumurru hauen kontrako lanketa berezirik eskaintzen, salbuespen gutxi batzuk kenduta<sup>13</sup>. Beraz, beharrezkoa da lanketa horiek sartzten hastea lan gidetan, eta errealtate berezi honek eskatzen dituen jarduerak diseinatzen hastea.

---

## GOMENDIOAK

Jarraian agertzen dira gidetan estereotipoen eta zurrumurruek gaiari heltzeko gomendio batzuk.


1. Dauden estereotipoak eta zurrumurruek identifikatzea, lehenik emakume etorkinak/ jatorri atzerritarra dutenak inplikaturik, baina baita bertako emakumeak, gizon etorkinak eta bertako gizonak ere.
2. Estereotipo eta zurrumurru horien elementuak identifikatzea: zurrumurru baten gerizpean beste zenbait zurrumurru egon daitezke. Beharrezkoa da arlo honetan zehaztasuna izatea, argudio egokiak garatu ahal izateko.
3. Estereotipo eta zurrumurru horien funtzionamendua aztertzea: zergatik sortzen diren eta zergatik eusten zaizen. Azterketa hori zenbait sistemarekin lotuta egingo da: sistema patriarkala/matxista, arrazista/koloniala/paternalista eta klasista / baztertzailea.
4. Sekzioarteko ikuspegia aplikatzea estereotipo edo zurrumurru jakin bat aztertzeko orduan eta aurkako argudioak garatzeko orduan.

---

12. Gidaren atal honetan, “emakume etorkin” diogunean, Espainiako Estatutik kanpoko jatorria duten eta Afrika, Latinoamerika, Asia eta Ekialdeko Europako herrialderen batean jatorria duten emakume guztiei buruz ari gara, Espainiako herritar tasuna eskuratua izan ala ez; ulertzen dugu estereotipo batzuek guztiei berdin eragiten dietela.

13. Adibidez, **AURRE EGIN ZURRUMURRUARI**. *Immigrazioarekiko zurrumurruek, estereotipoen eta aurreiritzien aurka egiteko gida praktikoa*, Eusko Jaureritzako Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak 2012an argitaratu zuenean, argudio multzo bat garatu zen zurrumurru honi heltzeko: Immigrazioak matxismoa eta genero indarkeria areagotzen ditu.

5. Identifikatzea estereotipo eta zurrumurru horiek emakume etorkinen bizitzan eragiten dituzten askotariko ondorioak.
6. Agerian jartzea nola estereotipo eta zurrumurru batzuk emakume etorkinei bideraturiko politika publikoetan eta programetan sartzen diren, eta azkenean nola estereotipo horiei eusteko faktore bat izaten diren. Adibidez...



Emakume etorkinen, eta, bereziki, emakume magrebtarren egoerak eskatzen duenari egokituriko jarduerak diseinatzeari dagokionez, gomendio bat izango litzateke lan ildo bat sartzea LAIA eskola emakumeen jabe kuntzarako eskolan. Lan ildo horrek Eskolaren ildo espezifiko gisa landuko luke genero ikuspegia duen zurrumurruek aurkako lana, ahaleginak eta ekimenak modu estrategikoagoan koordinatuz. Horrela, Eskolak jatorri magrebtarra duten emakume etorkinak aintzat hartuko litzuzke bere proposamen guztietan.

---

## ERANSKINA

### Ejemplos de estereotipos/rumores sobre mujeres inmigrantes

Estereotipo eta zurrumurru batzuek emakume etorkin guztiei eragiten diete. Beste batzuek, berriez, etnia eta kultura komunitate jakin batzuetako emakumeei edo jatorri nazional jakin batzuetako emakumeei eragiten diete.

- Gutxi prestaturiko emakumeak, atzeratuta daudenak, ezjakinak, soilik gutxi kualifikaturiko lanetarako balio dute.
- Gizonen esanetara dauden emakumeak, pasiboak, mendekoak.
- Emakume zaugarriak, ahulak, babesgabeak.
- Indarkeria nozitzera ohituriko emakumeak, pasiboak abusuen edo indarkeriaren aurrean.
- Emakume promiskuoak, "errazak".
- Genero indarkeriaren gezurrezko salaketak egiten dituzte, gizarte laguntzak eskuratzeko edo beren administrazio egoera arautzeko.
- Bertako gizonekin ezkontzen dira beren administrazio egoera arautzeko.
- Bertako emakumeen "gizonak lapurtzen dituzte".
- Prostituzioan jarduten dute.
- Ejercen la prostitución.










# ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

Ajuntament de Barcelona (2011): *Guía pràctica per a l'agent antirumor. Com combatre els rumors i estereotips sobre la diversitat cultural a Barcelona*. Xarxa BCN Antirumors.

AWID (2004): *Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica*. Derechos de las mujeres y cambio económico 9. zk., 2004ko abuztua. Association for Women's Rights in Development, Toronto.

Amani Kolektiboa (1994): *Educación Intercultural. Análisis y resolución de conflictos*. Madrilgo Komunitatea. Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza.



araba  álava  
foru aldundia diputación foral



CUADRILLA DE CAMPEZO  
MONTAÑA ALAVESA  
KANPEZUKO-ARABAKO  
MENDIALDEA KUADRILLA

CEA(R) EUSKADI

Comisión de Ayuda  
al Refugiado en Euskadi  
Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea

 LAIA eskola  
Arabako emakumeen jabetuntzarako eta berdintasunerako eskola

**zas!**  
Zurumurraren Red Vasca  
Aurikako Sarea antirumoros

